2. Izenpetutako kontratuak amaitu direlako edo kontratua eraikin berrietara zabaldu delako, Erakundeak kontratistarengandik behar ditzakeen eta **7. Lotean jasota ez dauden beste lan batzuengatik eskainitako prezioa:**

   ............................................ euro, BEZ kanpo, honela xehatua:
   - Urteko prezioa etxebizitzen komunitateen arabera: … €, BEZ kanpo
   - Urteko prezioa garajeen komunitateen arabera: … €, BEZ kanpo

## 12. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Adierazitako esleipen-irizpideak eta horiei dagokien haztapena honako hauek izango dira, lote guztietarako eta eskaintza integratzailerako berdinak baitira:

**1. Kuantifikazioa balio-iritzi baten arabera egiten duten irizpideak: gehienez 40 puntu.**

Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

<u>a) Plan eragilea. Gehienez 15 puntu.</u>

Plan horren zehaztapena baloratuko da, enpresak eraikin bakoitzean egingo dituen zereginei buruz lanaren plangintzaren erakundeak kontratatzeko suszeptibilitateari eta edukiari dagokienez. Halaber baloratuko da, horren inguruan bakoitzak egindako fitxa edo txostena koherentea, ondo idatzia eta zehatza izatea, eraikin bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuta.

Era berean, kontratua betetzeko esleitutako baliabide teknikoak eta pertsonalak eta kontingentzien plana baloratuko dira atal honetan, zerbitzua ematean eragozpenik ez sortzeko.

<u>b) Zerbitzuen kalitate-kontroleko plana. Gehienez 20 puntu.</u>

Lanak jarraitzeko eta gainbegiratzeko kudeaketa-tresnen proposamena, Erakundearekin komunikazio-bideak, erreklamazioen kudeaketa, bezeroekiko arreta, jardueraren kontrola eta abar baloratuko dira.

Kalitate-kontroleko planaren kudeaketarekin lotuta, Erakundearen esku jarriko diren tresnak edo aplikazio informatikoak bereziki baloratuko dira.

Zerbitzura atxikitako langileen presentzia kontrolatzeko sistema bat ezartzea ere bereziki baloratuko da.

c) Aukerako proposamenak. Gehienez 5 puntu

Identifikatutakoez aparte beste elementu batzuen garbiketa-eskaintza —aparteko ordainsaririk gabe— baloratuko da.

Prozeduran aurrera jarraitzeko, eskaintzek gutxienez 20 puntu lortu beharko dituzte.

**2. Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideak: gehienez 60 puntu.**

**Proposamen ekonomikoa: gehienez 60 puntu.**

Honako formula matematiko hau erabiliz baloratuko da:

Non,

OLic: Lizitatzailearen eskaintza ekonomikoa

OMed: Aurkeztutako eta onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa

UTm: Ausarkeria-atalasea; kasu honetan, aurkeztutako eta onartutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren ehuneko 10en gainetik dagoen zenbateko txikiagoa.

Utm=% 90 × OMed:

PLic: Lizitatzailearen puntuazioa

T1: Lehen balorazio-tarteari dagozkion puntuak T1 = % 95 × PuntuMax

T2: Bigarren balorazio-tarteari dagozkion puntuak T2 = PuntuMax – T1

Honako balorazio-tarte hauek finkatzen dira:

(OLi≥ UTm) bada, puntuak honela emango dira:

| PLic = Utm / Olic x T1 |
|---|

2- (OLic < UTm) bada eta onargarritzat jo bada, eskaintza honela baloratuko da:

| PLic = T1 + T2 x (1- Olic / Utm) |
|---|

Lizitazioko aurrekontu maximoa hobetzen ez duten eskaintzek zero (0) puntu eskuratuko dituzte atal honetan.

Neurrigabekotzat edo ezohikotzat har daitekeen proposamen bat antzemanez gero, eskaintza egin duen/duten lizitatzaileari/lizitatzaileei entzunaldia eskaini beharko zaio/zaie, eskaintzaren balorazioa justifikatzeko eta baldintzak zehazteko.

Horretarako, eskaintza guztien arteko batezbesteko aritmetikoa baino % 10 (edo gehiago) txikiagoa den eskaintza oro desegokitzat edo ezohikotzat hartuko da.

Dena den, kontratazio-organoak eskaintzak atzera botako ditu, baldin eta anormalki baxuak badira, azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako, edo nazio- edo nazioarte-mailan, gizarte eta lan arloetan ingurumenari lotutako gaietan aplikatzekoak diren obligazioak betetzen ez badituzte. Bertan sartuta egongo da indarrean dauden hitzarmen kolektibo sektorialak ez betetzea.

## 13. EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzorde baten laguntza jasoko du. Batzorde hori honako hauek osatuko dute:

1. Erakunde kontratatzaileko Administrazio Kontseiluko idazkariak edo hau eskuordetzen duen pertsonak.
2. Erakunde kontratatzaileko zuzendari kudeatzaileak.
3. Erakundeko arkitekto teknikoak edo hau eskuordetzen duen pertsonak.
4. Sail Juridikoko arduradunak edo hau eskuordetzen duen pertsonak.

## 14. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua jarraian adierazten diren baldintzen arabera gauzatuko da:

a) Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 20. Klausulan adierazitakoen arabera.

b) Gainera, SPKLaren 202. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumenari buruzko exekuzioko baldintza berezi gisa honako hau ezartzen da: jardueran sortutako hondakin guztien kudeaketa ingurumen-irizpideak betez gauzatuko da, hiri-hondakinen parekagarriak direnen bilketa selektiboa, eta arriskutsutzat sailkatutako ontzien eta gainerako hondakinen kudeaketa egokia aplikatuz.

   Egikaritzeko baldintza berezi hori betetzen ote den egiaztatzeko, urtero, kontratua indarrean dagon bitartean, kontratistak txosten bat aurkeztu beharko du. Bertan, sortutako hondakin guztiak kudeatzeko hartu diren neurriak deskribatuko ditu.

c) Halaber, SPKLaren 202. artikuluan xedatutakoa betez, kontratuen lan-egonkortasunari buruzko exekuzioko izaera sozialeko baldintza berezi gisa honako hau ezartzen da: kontratua indarrean dagoen denbora guztian, kontratistak kontratua gauzatzeko atxikitako langile guztiak mantendu beharko ditu, eta ez da bidezkoa izango atxikitako langile horien lan-kontratuak etetea edo iraungitzea, honako kasu hauetan izan ezik: langilearen borondatez kontratua eteten edo iraungitzen bada, diziplina-kanporatzeak badira, erakunde kontratugilea ados ez badago, eta aurrekontu-egonkortasuneko arrazoiengatik kontratua aldatzen bada eta, bat-batean emandako baldintzengatik, enpresa Langileen Estatutuen 51. artikuluan aurreikusitako kasuren batean murgilduta badago.

   Exekuzioko baldintza berezi hori betetzen den egiaztatzeko, kontratua exekutatzen hasi aurretik, eta kontratua indarrean dagoen hilabete bakoitzean, kontratistak lanen exekuziora atxikita dauden

langileen zerrenda aurkeztu beharko du; eta, zerrenda hori aldatzen bada, aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiak justifikatu beharko ditu.

d) Kontratua lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden arau, lege eta hitzarmenen mende dago.
Testuinguru horretan, esleipendun suertatuz gero kontratua gauzatuko duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zehaztuko dute lizitatzaileek, Karatula honen 11. artikuluan eskatutako proposamen teknikoan. Kontratua gauzatuko duten langileei enpresa esleipendunak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-erabakian eta kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Gainera, kontratua esleitu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatu zaion informazio guztia ematera behartuta egongo da esleipenduna.

Esleipendunak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan zehaztutako konpromiso hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da. Urratuz gero, lote horri dagokion kontratua suntsiarazteko arrazoia dago.

e) Preskripzio Teknikoen Agiriko 5. artikuluan ezarritako baldintzetan, kontratistak, kontratua formalizatzen denetik hasi eta 15 egun naturaleko epe maximoan, Kontratuaren plan bat aurkeztu beharko du. Bertan bilduko dira garbiketa-lanak egingo diren egunak eta orduak; halaber, kontratua gauzatzeko zerbitzura jartzen diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak adieraziko ditu.

Lan-programa horrek, Karatula honetan, Agiri ekonomiko-administratiboan, Preskripzio Teknikoen Agirian eta kontratuan finkatutako datak eta epeak errespetatu beharko ditu. Horren inguruan, Erakundeak kontratua betetzeko beharrezkoak iruditzen zaizkion aldaketak, hedapenak eta definizio-mailak sartzeko eskatu ahal izango du.

Kontratu-baldintzak aldatuko balira, kontratistak programa hau berritzeko eta eguneratzeko obligazioa dauka.

Era berean, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita gehienez 15 egun naturaleko epean, garbiketaren kalitatea gainbegiratzeko, kontrolatzeko eta ebaluatzeko plan bat aurkeztu beharko du esleipendunak, Preskripzio Teknikoen Agirian adierazitakoarekin bat etorrita.

f) Kontratista berak burututako lanen kalitatearen eta eskainitako prestazioen eta zerbitzuen arduraduna izango da. Halaber, kontratua gauzatzean egindako omisioek, akatsek, erabilitako metodo desegokiek edo okerrek Erakundean edo hirugarrenengan izandako ondorioen arduraduna izango da, baita ikuskapenen kalitate edo erabilitako materialen kalitate eskasarena ere.

Arduragabekeriagatik edo engainugatik, Erakundearen lokaletan, altzarietan, instalazioetan edo edozein jabetzatan kontratistaren langileek eragindako kalte pertsonalak zein materialak esleipendunak ordainduko ditu. Helburu horietarako Erakundea ere hirugarren aldetzat joko da.

g) Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak erabakiko du enpresa kontratistak egindako prestazioak kontratua gauzatzeko eta betetzeko ezarritako baldintzekin bat ote datozen, eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio. Horretarako, beharrezkoak jotzen dituen neurri guztiak hartzeko eskatuko du, kontratua ondo gauzatuko dela ziurtatzeko. Kontratistak zentzuzko epe bat edukiko du adierazitakoa betetzeko.

h) Zigorrak aplikatu eta ordaindu arren, kontratistari egotzi dakiokeen atzerapenagatik edo ez betetzeagatik Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak kalte-ordainak jasotzeko eskubidea edukitzen jarraitzen du.

## 15. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Kontratu bidezko funtsezko betebeharrak izango dira Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 21. Klausulan finkatutakoak.

Gainera, kontratu bidezko funtsezko betebeharra izango da aurreko 14. puntuko b), c) eta d) letretan ezarritakoa, baita, kontratua indarrean dagoen denboran, Karatula honetan adierazitako aseguru-polizak harpidetzea eta mantentzea ere.

## 16. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeak, berez, ez du eragingo erakunde kontratugileak datu pertsonalak tratatzea.

## 17. KONFIDENTZIALTASUNA

Konfidentzialtasuneko betebeharra bost urteko eperako izango da, kontratua egikaritzeko informazioa ezagutzen duen unetik kontatzen hasita.

## 18. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 26. Klausulan ezarritako aurreikuspenak aplikatuko dira.

## 19. ASEGURUAK

1. Enpresa esleipendunaren ardura izango dira kontratua gauzatzean eragindako kalte-galera guztiak, izaera eta bolumena edozein direla.

Kontratuan ezarritakoa gorabehera, enpresa esleipendunak honako poliza hauek kontratatuko ditu bere kontura, kontratuak irauten duen bitartean izan daitezkeen gertaerak estaltzeko:

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

a) Erantzukizun Zibileko asegurua, kontratua gauzatzean hirugarren pertsonen eta horien ondasunen gainean eragindako kalte eta galeren ondoriozko erantzukizuna estaltzeko.

b) Aseguru horrek, gutxienez, ustiapen-bermea edo berme orokorra, patronala eta defentsa eta finantzen bermea barne hartuko ditu.

c) Aseguru honen bermeetarako kalte-ordainen mugak, ezbehar bakoitzeko, ezingo du 1.000.000 eurotik beherakoa izan. Erantzukizun Zibil Patronalaren kasuan, biktima bakoitzagatik muga ez da 300.000 euro baino gutxiago izango.

d) Enpresa esleipendunak kalteak Erakundeari edo bere ondasun edo langileei eragiten badie, kaltetuak polizan kalte-ordaina jasoko duten hirugarrenen multzoan sartuko dira. Kalteak beste edozein hirugarren bati, bere ondasunei edo langileei eragiten bazaizkie, aseguratutzat joko dira guztiak Erantzukizun Zibilaren polizaren barruan.

Edonola ere, enpresa esleipendunaren kontura izango dira aseguru bakoitzaren frankizien zenbatekoa eta ezbeharrengatik ordaindu beharrekoa, baita ezbeharren zenbatekoa ere, aseguru-polizan ezarritako mugak gainditzen diren kopuruan. Era berean, bere kontura izango dira polizak estaltzen ez dituen hirugarrenentzako kalte-ordainak eta kalteak.

Enpresa esleipendunak, kontratua sinatu aurretik, erantzukizun zibilaren aseguratzailearen ziurtagiria aurkeztuko du, “Aseguru-entitatearen ziurtagiria” izenekoa.

2. Enpresa esleipendunak bere kontura mantenduko ditu honako estaldura hauek, kontratua gauzatzen den bitartean eta/edo egin beharreko zerbitzuen kasuan behinik behin:

Enpresa esleipendunak eta azpikontratistek, egonez gero, Gizarte Segurantzan alta emanda edukiko dituzte, indarrean dagoen araudiaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzuak egiten parte hartzen duten pertsona guztiak. Halaber, kasuan-kasuan sektoreko hitzarmenetan zehaztutako bizitza- eta istripu-aseguruetako eskakizunak beteko dituzte.

b) Enpresa esleipendunaren kontura izango dira edozein parte-hartzaileren instalazio, makina, ekipo eta ondasunen gainean eragindako kalteak, gauza pertsonalak barne hartuta.

c) Nahitaezko izenpetze-erantzukizuneko eta borondatezko erantzukizun zibileko asegurua, esleipendunaren ibilgailu propioen kasuan zein erabil ditzakeen bestelako ibilgailuen kasuan.

3. Aipatutako aseguruen kontratazioak ez ditu mugatuko enpresa esleipendunak gainerako kontratuzko zehaztapenen arabera bere gain hartutako betebeharrak eta erantzukizunak. Kontratugilearen erantzukizun primarioa eta zuzenekoa ere ezingo da murriztu, arindu edo aseguratzaileen baldintzetara edo jardunetara subrogatu.

4. Kontratuak irauten duen bitartean, Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak esleipendunari eska dakioke lehen aipatutako aseguruen dokumentazioa aurkezteko, edo polizen kopia aurkezteko. Halaber, primen ordainketa egunean duela ziurtatzeko eska dakioke, eta esleipendunak eskaera betetzeko betebeharra du.

5. Aseguru propioak kontratatzeko baldintzak urratzea, lehen aipatutakoa kontuan hartuta eta

Entidad Pública Empresarial de Vivienda – Donostiako Etxegintzak adierazita, kontratu hutsegite larritzat joko da eta hark eskubidea du kontratatu gabe dauden aseguruak kontratatzeko, berak ezarritako epeen barruan.

Esleipendunak dituen betebeharrak berak kontratatutako azpikontratistei dagozkie halaber eta, oro har, kontratua gauzatzeko parte hartzaile guztiei. Ondorioz, betebehar horiek guztiak jakinarazi eta kontrolatuko dira.

## 20. ZIGORRAK

Kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, epeetan atzeratzeak (guztira edo partzialki) eragindako zigorrak honako hauek izango dira: kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzagatik 0,60 euro atzeratutako egun bakoitzeko, BEZ kanpo.

Zigor bera aplikatuko da gauzatzeko funtsezko edozein betebehar edo baldintza oker betetzeagatik edo ez betetzeagatik, kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada. Kasu horretan, zigorra ezarriko da dagokion zuzenketa, betetzea edo gauzatzea burutzeko behar diren egunen kopurua kontuan hartuta.

Bi kasuetan, zigor horiek egiaztatzen diren kalte-galerei gehituko zaizkie.

## 21. KONTRATUA LAGATZEA

Ez da bidezkoa, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria izan direla ulertzen delako.

## 22. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahal izango du zerbitzuaren zati bat hauek ematea, SPKLaren 215. artikuluan eta Administrazio Klausula Partikularren Agiriko 29. klausulan xedatutakoa kontuan hartuz.

## 23. KONTRATUAREN ALDAKETAK

1. Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du, SPKLaren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

2. SPKLaren 205. artikuluan aurreikusitako aldaketa-kasuez gain, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du puntu honetan berariaz biltzen diren kasuetan, zehazki:

    a. Izenpetutako datan beste garbiketa-kontratu batzuk amaitu direlako eta luzatu ez direlako, Erakundeak kontratistaren beharra izango lukeenean, eraikinen garbiketa kontratuan sartzeko.
    b. Gaur egun oraindik eraikita ez dauden baina kontratua indarrean egongo den bitartean eraikiko diren eta garbitzeko beharra duten beste eraikin batzuen garbiketa kontratuan sartzeko.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

Izenpetutako kontratuak amaitu direlako edo zerbitzua eraikin berrietara zabaltzeko, Erakundeak kontratistaren beharra izango lukeen eraikinetan garbiketa-lanen prezioa aplikatzeko, ondorengo formula hau erabiliko da:

Etxebizitza-komunitate bakoitzeko (hileko prezioa):

$$\frac{\sum \text{ etxebizitzentzako hileko esleipen-prezioa}}{\sum \text{ jatorriko etxebizitza kopurua}} \text{ x etxebizitza kopurua eguneratua}$$

Garaje-komunitate bakoitzeko (hileko prezioa):

$$\frac{\sum \text{ garajeentzako hileko esleipen-prezioa}}{\sum \text{ jatorriko garajeen azalera}} \text{ x garajeen azalera eguneratua}$$

Helburu horiekin, lizitatzaileek, eskaintza ekonomikoan, etxebizitzen komunitateei dagokien prezioaren zatia eta garajeen komunitateei dagokien prezioena xehatu beharko dute.
Aldaketaren zenbatekoa emaitzazko hileko prezioari kontratuaren iraunaldia amaitzeko falta diren hilabeteen kopura aplikatuz kalkulatuko da.

Lizitazio motarekiko baja ekonomiko handiena aurkeztu duen esleitutako lotearekiko egingo da kontratuaren aldaketa. Berdinketa gertatuz gero, eskaintza teknikoan puntuazio handiena lortu duen esleitutako lotea nagusituko da. Berdinduta jarraitzen badute, zozketa bidez erabakiko da.
Aldaketa hauek lote bakoitzaren esleipen-prezioaren % 20n eragin dezakete gehienez kontratuaren prezioaren ehuneko maximoari dagokionez.

Baja ekonomiko handiena aurkeztu duen lote horri egindako aldaketak esleipen-prezioaren % 20ko mugara heltzen badira, ondorengo aldaketak baja ekonomikoko ehuneko handienari dagokionez bigarren geratu den lotearekiko egingo dira, eta horrela egingo da hurrenez hurren, hirugarren paragrafoan aurreikusitakoa aplikatuz.

Aurretik aipatutako aldaketa posibleak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Hamabost eguneko epea izango du bermea egokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.

Edozein kasutan aldaketak Erakunde kontratatzaileak eskatuta eta Agiri honetan jasotako baldintzetan tramitatuko dira. Eranskin batean, zehatz identifikatu beharko dira eskaini beharreko zerbitzuak. Eranskin hori bi aldeek sinatu eta kontratuari erantsi beharko zaio.

Kontratu-aldaketak ezingo du ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitate-prezio berririk ezartzea.

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

## 24. BERME-EPEA

Berme-epea 12 hilabetetan ezartzen da, zerbitzuak jaso edo onartutako datatik kontatzen hasita.

## 25. KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak izango dira, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 33. Klausulan adierazitakoez gain.

Kontratistari egotzi dakiokeen arrazoi batengatik kontratua suntsiarazten den kasu guztietan, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren —BEZ kanpo— % 20ren kantitate baliokidea erakunde kontratugilearen alde sortuko da. Zigor hori egiaztatuko diren kalte-galerei gehituko zaie.

# I. ERANSKINA: INDARREAN DAGOEN KONTRATUA BETETZEKO ATXIKITAKO LANGILEEN BALDINTZEN INGURUKO INFORMAZIOA

| LANGILEAK | LANTOKIA | ASTEKO ORDUAK | ANTZINATASUN-DATA | KONTRATUAREN KODEA | KATEGORIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Oriamendi pasealekua, 18 | 1 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Oriamendi pasealekua 20 | 1 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Andoain kalea, 46 | 2 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Mons pasealekua, 5 | 3 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Mons pasealekua, 5 garajeak | 0,5 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Mons pasealekua 87 | 0,5 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | M.Dolores Goia Pl. 001 garajea | 0,5 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Ignacio Ugarte plaza, 1 | 3 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Ignacio Ugarte plaza, garajeak | 0,5 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Argel pasealekua, 2 | 2 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 1 | Argel pasealekua, garajeak | 0,5 | 2013/07/15 | 289 | GARB. |
| 2 | Serapio Mujica, 13 | 2,25 | 2011/12/01 | 200 | GARB. |
| 2 | Serapio Mujica, 15 | 2,25 | 2011/12/01 | 200 | GARB. |
| 2 | Serapio Mujica, 17 | 2,25 | 2011/12/01 | 200 | GARB. |
| 2 | Serapio Mujica, 19 | 2,25 | 2011/12/01 | 200 | GARB. |
| 2 | Serapio Mujica, garajeak | 1,5 | 2012/12/ 01 | 200 | GARB. |
| 3 | * Morlans pasealekua, 2 | 2 | 2014/02/01 | 289 | GARB. |
| 3 | * Morlans pasealekua, 4 | 2 | 2014/02/01 | 289 | GARB. |
| 3 | * Morlans pasealekua, 6 | 2 | 2014/02/01 | 289 | GARB. |
| 3 | * Morlans pasealekua, 8 | 2 | 2014/02/01 | 289 | GARB. |
| 3 | * Morlans pasealekua, 10 | 2 | 2014/02/01 | 289 | GARB. |
| 3 | * Morlans pasealekua, 10 garajeak | 0,5 | 2014/02/01 | 289 | GARB. |
| 4 | Nemesio Etxaniz, 1 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Nemesio Etxaniz, 3 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Gabriel Mª Lafitte plaza, 3 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Ander Arcelus plaza, 1 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Ander Arcelus plaza, 2 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Irasmoene, 1 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |

| LANGILEAK | LANTOKIA | ASTEKO ORDUAK | ANTZINATASUN-DATA | KONTRATUAREN KODEA | KATEGORIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 4 | Felisa Martin Bravo hiribidea, 15 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Felisa Martin Bravo hiribidea, 17 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Felisa Martin Bravo hiribidea, 19 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Felisa Martin Bravo hiribidea, 21 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Añarbe plaza, 1 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Añarbe plaza, 2 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Añarbe plaza, 2 garajeak | 0,5 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Julio Maeso, 2 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Julio Maeso, 4 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Julio Maeso, 6 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Julio Maeso, 8 | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 4 | Saturio Burutaran | 2 | 2013/10/01 | 189 | GARB. |
| 5 | Marañon doktorea pasealekua, 22 | 4,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Marañon doktorea pasealekua, garajea | 0,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Illarra bidea, 10 | 2 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Illarra bidea, 12 | 2 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Illarra bidea, garajeak | 0,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Goiko Galtzada Berri, 8 | 1,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Goiko Galtzada Berri, 10 | 1,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Goiko Galtzada Berri, 12 | 1,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Goiko Galtzada Berri, 14 | 1,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 5 | Goiko Galtzada Berri, garajeak | 0,5 | 2018/09/05 | 289 | GARB. |
| 6 | Berrabehea, 4 | 2 | 2010/05/06 | 289 | GARB. |
| 6 | Berrabehea, 6 | 2 | 2010/05/06 | 289 | GARB. |
| 6 | Casares pasealekua, 9 | 2 | 2010/05/06 | 289 | GARB. |
| 6 | Casares pasealekua, 11 | 2 | 2010/05/06 | 289 | GARB. |
| 6 | Casares pasealekua, garajeak | 0,5 | 2010/05/06 | 289 | GARB. |
| 7 | Berrabehea, 5 | 2 | 2006/06/09 | 289 | GARB. |
| 7 | Berrabehea, 7 | 2 | 2006/06/09 | 289 | GARB. |
| 7 | Berrabehea, 9 | 2 | 2006/06/09 | 289 | GARB. |
| 7 | Berrabehea, 11 | 2 | 2006/06/09 | 289 | GARB. |

Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

| LANGILEAK | LANTOKIA | ASTEKO ORDUAK | ANTZINATASUN-DATA | KONTRATUAREN KODEA | KATEGORIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 7 | Berrabehea 13 | 2 | 2006/06/09 | 289 | GARB. |
| 7 | Berrabehea, 15 | 2 | 2006/06/09 | 289 | GARB. |
| 8 | Orkolaga aita pasealekua, 14 | 1,5 | 2005/03/01 | 289 | GARB. |
| 8 | Orkolaga aita pasealekua, 16 | 1,5 | 2005/03/01 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza | 1,25 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza | 1,25 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza | 1,25 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza | 1,25 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza | 1,25 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza | 1,25 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 9 | Lasarte plaza, garajeak | 0,5 | 2014/01/13 | 289 | GARB. |
| 10 | Pinu bidea, 27 | 3,75 | 2014/07/05 | 200 | GARB. |
| 10 | Pinu bidea, garajeak | 0,5 | 2014/07/05 | 200 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 1 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 2 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 3 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 4 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 5 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 6 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 7 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Bascongada pasealekua, 7 garajeak | 1 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Katalina Eleizegi, 19 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Katalina Eleizegi, 21 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Katalina Eleizegi, 23 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Katalina Eleizegi, 25 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Katalina Eleizegi, garajeak | 0,5 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Hiru- Damatxo plaza, 9 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Hiru- Damatxo plaza, 10 | 2 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Hiru- Damatxo plaza, garajeak | 0,5 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Harrobieta plaza, 7 | 2,5 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Harrobieta plaza, 8 | 2,5 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |
| 11 | Harrobieta plaza, 9 | 2,5 | 2014/12/01 | 289 | GARB. |

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Etxegintza
Vivienda
Peñaflorida 14 1º | Tel. 943481765 - 943481194 | etxegintza@donostia.eus | www.donostia.eus/etxegintza
20004 Donostia / San Sebastián

| LANGILEAK | LANTOKIA | ASTEKO ORDUAK | ANTZINATASUN-DATA | KONTRATUAREN KODEA | KATEGORIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 12 | Bascongada pasealekua, 8 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 9 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 10 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 11 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 12 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 13 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 14 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Bascongada pasealekua, 14 garajeak | 1 | 2014/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Benta Berri plaza, 6 | 5,5 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Morlans pasealekua, 3 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Morlans pasealekua, 5 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Morlans pasealekua, 7 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Morlans pasealekua, 9 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Morlans pasealekua,11 | 2 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 12 | Morlans pasealekua, 011 garajeak | 0,5 | 2019/05/22 | 501 | GARB. |
| 13 | Garaje guztiak | 17 | 2009/10/02 | 200 | GIDARIAK |
| 14 | Kristalak eta kristalizatuak | 11 | 2009/10/02 | 200 | PEOI BER. |
| | * Gaur egun 1. langileak ordezkatzen du titularrak liberazio sindikala duelako | | | | |